



Esp. zk.: SUBV_CON_COMPET/2021/26

Ediziorako laguntzak

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua).**

0

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emalea:	Kultura eta Berdintasuneko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kultura eta Berdintasuneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdiak xede du laguntza ekonomikoa ematea argitaletxeei, profesionaleri eta irabazi-asmorik gabeko entitatei Iruñearekin, haren kulturarekin, folkloarekin, pertsonaiekin eta historiarekin lotutako literatura-sorkuntzan eta ikerketa zientifikoan, bai euskarri tradizionalan (papera) bai euskarri elektronikoa.

Lanak jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dute, faksimileak, euskarazko zein gaztelaniazko lehen itzulpenak edo agortutako jatorrizko liburuen berrinprimatzeak (betiere azken inprimatzea duela hamar urte baino gehiago egin bazen, edukien % 15 berriak badira eta maketa zein ISBNa berriak badira).

2. Deialdiaren helburua:

Deialdiaren helburua da Iruñearekin, haren kulturarekin, folkloarekin, pertsonaiekin eta historiarekin harreman zuzena duten argitalpenen sorkuntza eta edizioa bultzatzea, udalerraren nortasuna bultzatzen dutenak eta Iruñeko kultura sustatzen laguntzen dutenak, edozein ikuspegitik: historikoa, lurraldekoa, soziala, etab. Era berean, kalitatezko eskaintza sustatu nahi da, askotarikoa, literatura-jarduera eta egileen lana bultzatzeko.

Liburua kultura eta ondarea transmititzeko bide argia da, eta irakurketa, funtsezko tresna norberaren eta gizartearen garapenerako. Halaber, argitalpen-sektoreak eragin ekonomiko handia du, harekin lotutako industria asko baitaude.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Bi modalitate ezarri dira:

1. MODALITATEA - ARGITALETXE ETA PROFESIONALEI ZUZENDUA.

Modalitate honetako betekizunak eta baldintzak:

- Argitalpenek (LIBURUAK) harreman zuzena izatea Iruñearekin, haren kulturarekin, folkloarekin,



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

pertsonaiekin eta historiarekin, eta udalerrriaren nortasuna bultzatzea eta Iruñeko kultura sustatzen laguntzea, edozein ikuspegitik: historikoa, lurraldekoa, soziala, etab.

- Iruñeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan onartuko dira lanak.
- Lanek argitaratuta egon beharko dute 2020ko abenduaren 31tik 2021eko abenduaren 31ra bitartean, biak barne. Edizio-gastuek deialdiaren urtean fakturatuta egon behar dute.
- Paperean eta euskarri digitalean aldi berean argitaratzen diren lanak eskaera bateratu bakar batean aurkeztuko dira. Kasu horretan dirulaguntza jaso dezaketen gastu gisa sartu ahal izanen dira bi formatuekin zerikusia dutenak.

Modalitate honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Edozein entitate publikok eta haren erakunde autonomoek eskatutako argitalpenak.
- Testuliburuak, entziklopediak, hiztegiak, unibertsalki eskuratu ezin diren obrak, agendak, dietarioak eta antzekoak, gida didaktikoak edo aldizkako argitalpenak.
- Aurreko urteetako lege-gordailua duten obrak.
- Lehen itzulpenak ez diren itzulpenak.
- Oinarrien xedean aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten berrinprimatzeak eta berredizioak.

Argitaletxe edo profesional bakoitzak GEHIENEZ HIRU LIBURU aurkezten ahalko ditu.

2. MODALITATEA - IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATEEI ZUZENDUA.

Modalitate honetako betekizunak eta baldintzak:

- Argitalpenek (LIBURUAK EDO ALDIZKARIAK) harreman zuzena izatea Iruñearekin, haren kulturarekin, folkloreakin, pertsonaiekin eta historiarekin, eta udalerrriaren nortasuna bultzatzea eta Iruñeko kultura sustatzen laguntzea, edozein ikuspegitik: historikoa, lurraldekoa, soziala, etab.
- Iruñeko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan onartuko dira lanak.
- Lanek argitaratuta egon beharko dute 2020ko abenduaren 31tik 2021eko abenduaren 31ra bitartean, biak barne. Edizio-gastuek deialdiaren urtean fakturatuta egon behar dute.
- Paperean eta euskarri digitalean aldi berean argitaratzen diren lanak eskaera bateratu bakar batean aurkeztuko dira. Kasu horretan dirulaguntza jaso dezaketen gastu gisa sartu ahal izanen dira bi formatuekin zerikusia dutenak.

Modalitate honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Kultura- edo eskola-buletinak, gida didaktikoak, ikuskizun-gidak, urtekariak, auzo-aldizkariak, katalogoak edo antzekoak.
- Edozein entitate publikok eta haren erakunde autonomoek eskatutako argitalpenak.
- Publizitatearen batez besteko proportzioa urteko ale guztien espazioaren % 30etik gorakoa dutenak.
- Eranskin, ezohiko ale edo beste argitalpen batekin batera banatzen diren argitalpenak.
- Aldizkakotasun egonkorrik ez duten aldizkako argitalpenak.
- Webguneak.
- Egileak eta haien lanak sustatzera bideratutako argitalpenak, balorazio-batzordearen iritziz.
- Erakusketen katalogoak.
- Batzordearen iritziz, nagusiki objektu kultural bat sortzeko erabiltzen diren materialei eta baliabide teknikoari buruzkoak direnak, edo gehien bat kultur jardueraren sektore bakoitzeko profesionalen berezko aferei buruzkoak direnak.
- Argitaratuta dauden lanen berrinprimatzeak, berredizioak eta itzulpenak.

Entitate eskatzaile bakoitzak PROIEKTU BAKARRA aurkezten ahalko du.



C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 41.000 €

Paragrafo honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2021ean agortu eta Kultura eta Berdintasuneko Alorrean aurtengorako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira.

Kasu horretan, soberako dirua esleituko zaio aurkeztutako eskaera guztiak betetzeko aurrekontu-kontsignazioa nahikoa izan ez duen modalitateari.

Hau da, lehenbizi dirua modalitateen arabera banatzen da, atal honetako 3. puntuan adierazitakoarekin bat. Bi modalitateetako batean zenbatekoa soberan badago eta bestean falta bada, soberako dirua beste modalitateara transferituko da. Aldaketaren ondoren egoerak bere horretan segituz gero eta zenbateko nahikorik ez duen modalitateara Alorreko beste partida batzuetatik kreditua transferitzeko aukera balego, aldaketa egingen da.

Edozein kasutan, atal honetako 3. puntuan adierazitako irizpideak errespetatuko dira.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/33401/479000
50/33401/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienezko aurrekontu-kontsignazioa deialdi honek ezartzen dituen bi modalitateen artean banatzen da, honela:

a) 1. modalitatea: 30.000 €. Obra bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere onartutako aurrekontuaren % 70 baino gehiago izanen, eta gehienez ere 10.000 € liburu bakoitzeko.

b) 2. modalitatea: 11.000 €. Obra bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere onartutako aurrekontuaren % 70 baino gehiago izanen, eta gehienez ere 6.500 € proiektu bakoitzeko.

Onartutako aurrekontua izanen da entitateak aurkeztutako aurrekontuari diruz lagundu ezin diren gastuei dagozkien zenbatekoak kentzearen emaitza.

Entitate onuradunetako batek laguntzari uko egiten badio, zenbateko hori eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez duten eta laguntza eskuratu ez duten proiektuetara bideratzen ahalko da.

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta: 2.021 € 2. urtekoa () € 4. urtekoa () €

1. urtekoa () € 3. urtekoa () €

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:



1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta atal honetan hala egin dela adierazten bada.

Berriazko betekizunak: BAI EZ

a) 1. modalitatea:

i. Profesionalak:

- Alta emanda egotea idazleen 863. JEZn, liburuen edizioko 476. JEZn edo argitalpenaren gaiari zuzenean lotutako epigraferen batean.

- Espainian edukitzea egoitza soziala nahiz zerga-egoitza.

ii. Argitaletxeak:

- Gizarte-xedearen barruan liburuen edizioa sartzea.

- Legearekin bat eraturik egotea deialdi hau NAO n argitaratu baino urtebete lehenagotik.

- Espainian edukitzea egoitza soziala nahiz zerga-egoitza.

b) 2. modalitatea

Irabazi-asmorik gabeko entitateak:

- Irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea, eta haren estatutuetan jasota egotea erakundearen helburua kulturala dela.

- Legearekin bat eraturik egotea deialdi hau NAO n argitaratu baino urtebete lehenagotik.

- Espainian edukitzea egoitza soziala nahiz zerga-egoitza.

Berriaz honako hauek kanpo geratuko dira:

- Tokiko entitateak, haien erakunde autonomoak, enpresa-entitate publikoak.

- Nafarroako Foru Komunitateko tokiko entitateen gehiengo partaidetza duten fundazio eta sozietate publikoak.

- Sindikatuak eta udal-entitate korporatiboak.

- Iruñeko Udalaren 2021eko aurrekontuetan deialdi honen xede diren proiektuak egiteko partida izenduna duten entitateak.

Bi modalitateetarako betekizun orokorrak:

- Eguneratuak izatea Iruñeko Udalarekiko tributu-betebeharrak; hori Iruñeko Udalak ofizios egiaztatuko du, eta dagokion eginbidean jasoko du. Era berean, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, Udalak ofizios egiaztatuko du ez dutela Udaleko Diruzaintzari diru-kopururik ordaintzeke.

- Eguneratuak izatea zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.

- Udal honek aurretik eman eta justifikazio-epaia amaituta duten dirulaguntzarik ez izatea justifikatu gabe. Debeku hori automatikoki aintzat hartuko da, eta justifikaziorik ez dagoen bitartean iraunen du.



Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuari esker diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

SÍ NO

Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egitea diruz lagundutako proiektuak sustatzeko egiten diren kartel, testu, agiri eta gainerako euskarrien edukietan, eta Berdintasuneko Ordenantzak jasotako betebeharrak betetzea.

Euskararen erabilerari dagokionez, Euskararen Ordenantzak ezarritakoa aintzat hartu beharko da.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jardura edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jardura / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da"
- Promozio- edo publizitate-oparrietan eta dirulaguntzak finantzaturako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: BAI EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:



Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI EZ

Proiektuaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera jakinaraziko da, baldin eta proiektuan aldaketarik eragiten badu, gorabehera gertatzen den unean bertan.

Diruz lagundutako proiektuaren edozein aldaketak Kultura eta Berdintasuneko Alorraren onespena izan beharko du aldez aurretik, eta ebaluazio-batzordearen iritziz aldaketa horrek aurkeztutako proiektua funtsean aldatzen ez badu emanen da onspena.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez.

Administrazio Publikoarekin elektronikoki harremanetan jartzera beharturik ez dauden pertsonak honako toki hauetan aurkezten ahalko dituzte eskaerak: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan. Halaber, eskaerak aurkezten ahalko dira aurreko paragrafoan deskribatutako izapide telematikoaren bidez.

2. Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hortaz, eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek NAOn zein egunetan argitaratu eta hurrengo hilabeteko zenbaki bereko egunean amaituko da, salbu eta egun hori baliogabea bada, halako kasuetan, hurrengo egun baliodunean amaituko baita epea. Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere honi atxiki zaion I. ERANSKINAREN ereduarekin bat, edo, halakorik eginez gero, izapide telematikoaren eskaera elektronikoaekin bat, eskaeraren aurkezpenari dagokion moduaren arabera.

Eskaerarekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkeztuko du, IV. ERANSKINA. OBRA BAKOITZAREN DATUAK ETA KOSTUAK barne, eta eranskin zehatza aukeratuko du, aurkezten den modalitatearen arabera.

Proiektuak deialdiaren klausuletan adierazitako printzipio eta lehentasunen arabera izan behar du, deialdiak jasotzen duen kasuren batean aurreikusita egon behar du, eta ez du egon behar Udaleko beste alorretako deialdietan dirulaguntza aproposagorik jasotzeko egokieran. Halako kasuetan, egokiago jo den deialdi horretara bideratuko da proiektua.

Proiektuak behar bezain garaturik egon beharko du, eta helburuei buruzko informazioa eta horien baliabideak behar bezala justifikaturik.



Ez da beharrezkoa izanen G.4) puntuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administrazio egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administrazio egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. ERANSKINArekin bat, edo, hala egin bada, izapide telematikoan ezarritakoarekin bat, eskaera nola aurkeztu den, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagirak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko



da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena atxikita doan III. eranskina aurkeztuz egingen da, edo izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat, eskaera nola aurkeztu den. BAI EZ

f) Memoria bat, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria bat (3 orrialde gehienez), honako hauek jasotzen dituena:

- Edukiaren sinopsia eta Iruñearekin duen lotura.
- Hedapen-plana. Proiektuaren sustapen-, komunikazio- eta publizitate-jarduerak zehaztuz.
- Egileen curriculum laburra.

g) VI. eranskina, obra bakoitzaren datuekin eta kostuekin, berariazko eranskina erabiliz, aurkezten den modalitatearen arabera. Kostuak BEZik gabe jasoko dira.

h) Argitalpenaren aurkibidea eta argitalpena osorik, edo, gutxienez, kapitulu bat, edizio-egoera ahalik eta aurreratuenan eskaera aurkezteko unean.

i) Argitaletxeentzako berariazko dokumentazioa:

1. Entitatearen eskriturak.
2. Deialdi hau NAOn argitaratu baino urtebete lehenagotik gutxienez entitatea legearekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen agiria.
3. Egoitza soziala nahiz zerga-egoitza Espainian duela egiaztatzen duen agiria.
4. Aurreko bi urteetan argitaratutako obren eta berredizioen zerrenda (2019-2020). Zerrendan agertu beharko dira izenburua, egilea, ISBNa eta lege-gordailua.

j) Profesionalentzako berariazko dokumentazioa:

1. 863. edo 476. JEZn alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria.
2. Espainiako udalerrri batean erroldatuta egotea egiaztatzen duen agiria.
3. Aurreko bi urteetan argitaratutako obren eta berredizioen zerrenda (2019-2020). Zerrenda agertu beharko dira izenburua, egilea, ISBN eta lege-gordailua.

k) Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako berariazko dokumentazioa:

1. Entitatearen estatutuak.
2. Deialdi hau NAOn argitaratu baino urtebete lehenagotik gutxienez entitatea legearekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen agiria.
3. Egoitza soziala nahiz zerga-egoitza Espainian duela egiaztatzen duen agiria.

.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia



konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) 1. modalitatea:

Aurkezten diren proiektuak baloratzeko eta laguntzaren zenbatekoa zehazteko, balorazio-batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan, eta horiei ondoren azaltzen diren puntu-kopuruak emanen zaizkie, betiere, guztira, 100 punturen gainean:

1. Argialetxearen edo profesionalaren ibilbidea (10 puntu bitarte):

a) Azken bi urteetan argitaratutako lanak (5 puntu bitarte).

- i. 10 liburu edo gehiago..... 5 puntu.
- ii. 5-9 liburu..... 3 puntu.
- iii. 1-4 liburu.....1 puntu.

b) Helburuak, jarraitutasuna, egonkortasuna, osaera, dedikazioa eta entitatearen berezitasuna (5 puntu bitarte).

2. Proiektuaren balorazioa (90 puntu bitarte):

a) Argitalpenaren kalitatea eta interesa (50 puntu bitarte). Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Obraren kalitatea (30 puntu bitarte).
 - i. Edukien antolamendua, maketazioa, koadernaketa eta inprimatzea (20 puntu bitarte).
 - ii. Ilustrazioak sartzea (10 puntu bitarte).

- Obraren interesa (20 puntu bitarte).

- i. Berrikuntza. Argitalpenaren izaera berritzailea (10 puntu bitarte).
- ii. Originaltasuna eta sormena, kontuan hartuta zein publikori zuzenduta dauden. (10 puntu bitarte).

b) Iruñearekiko lotura (20 puntu bitarte). Obrak hiriaren errealitate kulturalarekin, sozialarekin eta linguistikoarekin duen lotura baloratuko da, bai eta hura hedatzeko eta ezagutarazteko egiten duen ekarpena ere.

c) Aurrez hasitako argitalpen sorta baten jarraipena: aurkeztutako obra aurrez argitaratutako beste baten edo batzuen jarraipena izan beharko du. (10 puntu bitarte).

d) Genero-estereotipoak hausten dituzten eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten edukiak sartzea (10 puntu bitarte). Baloratuko da hizkuntza berdinzalea erabiltzea, non emakumeak eta gizonak, edozein sexu-identitate eta -orientazio dutela ere, ordezkaturik sentitzen baitira; edukiek genero-rolak aldatzen laguntzea, eta proiektuan emakumeek parte hartzea.

Inolaz ere ez dute laguntzarik jasoko 2. atalean gutxienez puntuazioaren % 50 lortu ez duten proiektuek. "Proiektuaren balorazioa" (45 puntu).



Bete ez diren edo oker bete diren datuak edo zuhurtziagabekoak izan daitezkeenak baloraziotik kanpo utziko dira.

b) 2. modalitatea:

1. Entitate-eskatzailearen ibilbidea (10 puntu bitarte).

a) Entitatearen jarduera-urte osoak (5 puntu bitarte).

- i. 10 urtetik gora..... 5 puntu.
- ii. 7-10 urte..... 3 puntu.
- iii. 4-6 urte..... 2 puntu.
- iv. 1 urtetik aurrera 3 urtera bitarte..... 1 puntu.

b) Entitatearen lurralde-eremua edo lurraldearekiko garrantzia (5 puntu bitarte).

2. Proiektuaren balorazioa (90 puntu bitarte):

a) Argitalpenaren kalitatea eta interesa (gehienez ere, 50 puntu). Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Obraren kalitatea (30 puntu bitarte).

- i. Edukien antolamendua, maketazioa, koadernaketa eta inprimatzea (20 puntu bitarte).
- ii. Ilustrazioak sartzea (10 puntu bitarte).

- Obraren interesa (20 puntu bitarte).

- i. Berrikuntza. Argitalpenaren izaera berritzailea (10 puntu bitarte).
- ii. Originaltasuna eta sormena, kontuan hartuta zein publikori zuzenduta dauden (10 puntu bitarte).

b) Iruñearekiko lotura (20 puntu bitarte). Obrak hiriaren errealitate kulturalarekin, sozialarekin eta linguistikoarekin duen lotura baloratuko da, bai eta hura hedatzeko eta ezagutarazteko egiten duen ekarpena ere.

c) Aurrez hasitako argitalpen sorta baten jarraipena: aurkeztutako obra aurrez argitaratutako beste baten edo batzuen jarraipena izan beharko du. (10 puntu bitarte).

d) Genero-estereotipoak hausten dituzten eta berdintasuna sustatzen duten edukiak sartzea (10 puntu bitarte). Baloratuko da hizkuntza berdinzalea erabiltzea, non emakumeak eta gizonak, edozein sexu-identitate eta -orientazio dutela ere, ordezkatura sentitzen baitira; edukiak genero-rolak aldatzen laguntzea, eta proiektuan emakumeek parte hartzea.

Inolaz ere ez dute laguntzarik jasoko 2. atalean gutxienez puntuazioaren % 50 lortu ez duten proiektuek. "Proiektuaren balorazioa" (45 puntu).

Bete ez diren edo oker bete diren datuak edo zuhurtziagabekoak izan daitezkeenak baloraziotik kanpo utziko dira.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Batzordeburua: María García-Barberena Unzu, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zinegotzi



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

	ordezkaria / Beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Jorge Urdánoz Apezteguía, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zuzendaria / Beste zuzendari bat.
2.	Noelia Artázcoz Azcárate, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikaria / Kulturako beste teknikari bat.
3.	José Luis Díez Garde, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikaria / Kulturako beste teknikari bat.
Idazkaria:	Aitor Olaetxea Mikeo, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko administraria / Kultura eta Berdintasuneko Alorreko beste administrari bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Prozesuaren edozein unetan informazio osagarria eskatzen ahalko da.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Dirulaguntza ebatzi eta jakinarazteko epea HIRU HILABETEKOA izanen da, gehienez ere., eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aitzina.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udalaren Egoitza elektronikoa.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu



legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

a) 1. modalitatea:

Diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak, liburua argitaratu aurreko hamabi hilabeteetan egiten badira, eta gehieneko muga 2021eko abenduaren 31 bada. Gastu horien kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

- Argitalpenaren ekoizpenari dagozkion gastuak, argitaratzeko beharrezkoak diren prozesu guztiak barne hartuta: azalaren eta barrualdearen diseinua eta maketazioa, ilustrazioa, argazkiak eta irudien tratamendua (formatu edo bereizmenen bihurketa, digitalizazioa, ukituak egitea eta garbitzea) eta itzulpen zerbitzua.

- Egile-eskubideak.

-Argitalpenak inprimatzea. Argitalpen digitaleko plataformekin kudeatzea.

- Proiektuaren amaierako produktuaren zati bat edo proiektu osoa diren CD, DVD edo multimedien grabazioa.

- Gastu horiek argitaletxeko langileek edo kanpokoek egiten ahalko dituzte.

b) 2. modalitatea:

Diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak, liburua edo aldizkaria argitaratu aurreko hamabi hilabeteetan egiten badira, eta gehieneko muga 2021eko abenduaren 31 bada. Gastu horien kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

- Argitalpenaren ekoizpenari dagozkion gastuak, argitaratzeko beharrezkoak diren prozesu guztiak barne hartuta: azalaren eta barrualdearen maketazioa, ilustrazioa, argazkiak eta irudien tratamendua (formatu edo bereizmenen bihurketa, digitalizazioa, ukituak egitea eta garbitzea) eta itzulpen zerbitzua.

- Egile-eskubideak (SGAE, etab.).

-Argitalpenak inprimatzea. Argitalpen digitaleko plataformekin kudeatzea.

- Proiektuaren amaierako produktuaren zati bat edo proiektu osoa diren CD, DVD edo multimedien grabazioa, entitate eskatzaileak egiten ez baditu.

Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

a) 1. modalitatea:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Bidalketa-, biltegitratze-, alokairu-, ekipamendu-, banaketa-, sustapen- eta komunikazio-gastuak.
- Proiektua garatzeko aski beharrezkoak ez diren gastu-kontzeptuak eta haien zenbatekoa modu fidagarrian zedarriturik ez dutenak.
- Entitateak berreskuratzen ahal duen balio erantsiaren gaineko zerga.

b) 2. modalitatea:

- Bidalketa-, biltegitratze-, alokairu-, ekipamendu-, banaketa-, sustapen- eta komunikazio-gastuak, langileria-gastuez gain.
- Proiektua garatzeko aski beharrezkoak ez diren gastu-kontzeptuak eta haien zenbatekoa modu fidagarrian zedarriturik ez dutenak.
- Entitateak berreskuratzen ahal duen balio erantsiaren gaineko zerga.
- Ostatu hartzeak eragindako gastuak, bidaiak eta dietak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea:

Justifikazio-aldiaren epea amaitu baino lehen egindako gastuak, betiere gastuek dirulaguntzen xede diren proiektuekin harreman zuzena badute.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoa: % 100 Onuradunak inola ere ezin izanen du hitzarmenik egin Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin, diru-laguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean egiteko.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: BAI EZ

Ehunekoa edo zenbatekoa adierazi beharra dago: gutxienez aurrekontu onartuaren % 30 izan behar du, oinarri hauetako C.1 puntuan jasotakoarekin bat.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Aurrekoa gorabehera, bateraezina izanen da proiektu bera Iruñeko Udalaren deialdi batean baino gehiagotan aurkeztea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
 Konturako ordainketa:
 Ordainketa zatikatua:
 Ordainketa aurreratua:
 Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

- BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

- Justifikazio-kontua:
 Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
Justifikazioa Udalaren egoitza elektronikoan gaitutako "Dirulaguntzen justifikazio elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapidearen bidez egin beharko dute Administrazioarekin harremanak elektronikoki egitera behartuta dauden pertsonak; gainerako kasuetan beste bideak erabil daitezke justifikazioa aurkezteko, oinarri hauetako G.1 puntuan adierazitakoarekin bat.

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. Egindako argitalpenaren ale bat.
2. Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda, izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, ordainketa-agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data.
3. Egindako GASTUEN eta ORDAINKETEN fakturak edo froga-balioa duten agiriak aurkeztuko dira, bai eta dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko egindako benetako ordainketen egiaztapenak ere.
4. Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo dirulaguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

Txosten bat eman beharko da Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.



- Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.
Bestelako edukirik: BAI EZ
- Justifikazio-kontu erraztua.

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):
Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:
Moduluaren unitate-kostua:
Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko epea honako hau da: 2021eko abenduaren 31.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Emandako dirulaguntza diruz lagundutako proiektua egiteko erabiliko da. Beste ezertarako erabiltzeak berekin ekarriko du dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edota jasotakoa itzuli behar izatea.

2. Enpresa, profesional edo entitate onuradunak ez badu behar bezala justifikatzen proiektua egin dela, laguntza kobratzeko eskubidea galduko du.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. OBRA BAKOITZAREN DATUAK ETA KOSTUAK, aurkeztutako modalitatearen arabera:
-----IV. eranskina: Obra bakoitzaren datuak eta kostuak. ARGITALETXEAK ETA PROFESIONALAK (1. modalitatea)
-----IV. eranskina: Obra bakoitzaren datuak eta kostuak. ENTITATEAK (2. modalitatea)

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



-I. ERANSKINA-

ESKABIDE EREDUA (BAKARRIK ESKABIDEA BITARTEKO EZ-TELEMATIKO BIDEZ AURKEZTEKO)

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		TELEFONOA
ZK.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	
[EZABATU EZ DAGOKIZUNA] BEREZ edo HONAKO HONEN IZENEAN*:					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA				NAN, IFZ, AIZ edo IFK	
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZIJETATE-IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		
ZK.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	TELEFONOA
FAXA		HELBIDE ELEKTRONIKOA			

Jakinaren gainean nago NAO n argitaratu dela (zk:; data:)
dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, xede honetarako:
.....

Kategoria (markatu X batekin):

- **Argitaletxea**
- **Profesionala JEZ 863**
- **Profesionala JEZ 476**
- **Irabazi-asmorik gabeko entitatea**

ESKAERA: Eskaera kontuan har dadila. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditut:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
- Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu gisa hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bete egiten dituela Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eta deialdi honek exijitzen dituzten baldintzak, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen.
- Ziurtagiria, pertsona edo entitate eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzeko, deialdiaren G.4) puntuan zehaztutako moduarekin bat.
- Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (III. eranskina).
- Proiektuaren deskribapen-memoria.
- IV. Eranskina (obra bakoitzaren datuak eta kostuak).
- Argitalpenaren aurkibidea eta kapituluak.

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.iruna.es webguneko Pribatutasun-politikan kontsulta ditzakezu.



Deialdi honen G.4) puntuan zehazten diren kategoria bakoitzeko berariazko agiriak.

Iruñean,(e)ko.....aren(e)an.
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.iruna.es webguneko Pribatutasun-politikan kontsulta ditzakezu.

-II. ERANSKINA-
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO. (BAKARRIK ESKABIDEA BITARTEKO EZ-TELEMATIKO BIDEZ AURKEZTEKO)

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):

..... NAN: Telefonoa:

Faxa: Helbide elektronikoa:

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):

.....

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Faxa: Jakinaren gainean nago dirulaguntzen deialdia egin dela, norgehiagokako araubidean, xede honetarako:

.....
.....

ADIERAZPENA:

- Bete egiten ditut onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta Deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak oro.
- Ez nau ukitzen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikulua onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere.
- Egunean ditut zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dut eskatutako laguntzaren zenbatekoa erabiliko dudala dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko.
- Konpromisoa hartzen dut adierazpen honek zehazten dituen inguruabarrak ziurtatzeko, errekerimendua noiz egin eta hortik hamabost eguneko epean, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 15.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean,(e)ko.....aren(e)an.
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.iruna.es webguneko Pribatutasun-politikan kontsulta ditzakezu.



**-III. ERANSKINA-
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK
ESKATU IZANAREN GAIAN (BAKARRIK ESKABIDEA BITARTEKO EZ-TELEMATIKO BIDEZ
AURKEZTEKO).**

Izen-abizenak: Jakinarazpenetarako
helbidea: NAN:
..... Telefonoa: Fax zenbakia:
..... Posta elektronikoa:..... nire
kabuz edo beste honen izenean (dagokionaren arabera):
.....
..... Helbidea:
IFZ:..... Telefonoa:..... Faxe:
..... Jakinaren ganean nago dirulaguntzen deialdia egin dela, norgehiagokako
araubidean, xede honetarako:
.....
.....,

ADIERAZPENA, ESKATUTAKO DIRULAGUNTZARI BURUZ:

- Ez diet ezein dirulaguntza eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere–.
- Dirulaguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri:
- Dirulaguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik:

Eskatutako dirulaguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Jasotako dirulaguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, 2021ekoaren.....(e)an

(Sinadura)

IV. ERANSKINA. Obra bakoitzaren datuak eta kostuak. ARGITALETXEAK ETA PROFESIONALAK

Liburu bakoitzaren datuak (zutabe bat obra bakoitzeko)

Eskatzailea:			
Liburuari buruzko datu orokorrak			
Izenburua			
Obra mota			
Literatur generoa			
Argitalpen bilduma			
Egilea			
Itzultzailea			
Salmenta-prezioa (BEZa barne) papera			
Salmenta-prezioa (BEZa barne) digitala			
Orrialde-kopurua			
Ale-kopurua			
Edizio mota (papera / digitala)			
Aurreikusitako edizio epea			
Ezaugarri teknikoak			
Formatua (cm x cm)			
Karaktere kopurua, gutxi gorabehera			
Azala: koadernaketa			
Azala: inprimaketa			
Barrualdea: paper mota			
Gramajea			
Barrualdea: inprimaketa			
Ilustrazio kop., zuri-beltzean			
Ilustrazio kop., koloretan			
Argazki kop.			
Inprimaketa mota			
Edizio digitalaren formatua (epub, pdf...)			
Kostua	BEZIK GABE	BEZIK GABE	BEZIK GABE
Diseinua eta maketazioa			
Ilustrazioa, argazkia eta irudiaren tratamendua			
Erreproduktzio-eskubideak			
Egile-eskubideak			
Itzulpena			
Idazketa, zuzenketa, dokumentazioa			
Inprimaketa eta koadernaketa			
Argitalpen digitaleko plataforma kudeatzea			
CDen, DVDen, multimedien grabazioa			
GUZTIRA:	0,00 €	0,00 €	0,00 €

* Ez gainditzea kostuaren % 70 edo 10.000 € liburu bakoitzeko.

IV. ERANSKINA. Obra bakoitzaren datuak eta kostuak. ENTITATEAK

Liburuari buruzko datuak

Eskatzailea:	
Liburuari buruzko datu orokorrak	
Izenburua	
Obra mota	
Literatur generoa	
Argitalpen bilduma	
Egilea	
Itzultzailea	
Salmenta-prezioa (BEZa barne) papera	
Salmenta-prezioa (BEZa barne) digitala	
Orrialde-kopurua	
Ale-kopurua	
Edizio mota (papera / digitala)	
Aurreikusitako edizio epea	
Ezaugarri teknikoak	
Formatua (cm x cm)	
Karaktere kopurua, gutxi gorabehera	
Azala: koadernaketa	
Azala: inprimaketa	
Barrualdea: paper mota	
Gramajea	
Barrualdea: inprimaketa	
Ilustrazio kop., zuri-beltzean	
Ilustrazio kop., koloretan	
Argazki kop.	
Inprimaketa mota	
Edizio digitalaren formatua (epub, pdf...)	
Entitate eskatzaileak egin ez dituen kostuak	BEZIK GABE
Diseinua eta maketazioa	
Ilustrazioa, argazkia eta irudiaren tratamendua	
Erreproduktzio-eskubideak	
Egile-eskubideak	
Itzulpena	
Idazketa, zuzenketa, dokumentazioa	
Inprimaketa eta koadernaketa	
Argitalpen digitaleko plataforma kudeatzea	
CDen, DVDen, multimedien grabazioa	
TOTAL:	0,00 €
* Ez gaitziteza kostuaren % 70 edo 6.500 €.	

IV. ERANSKINA. Obra bakoitzaren datuak eta kostuak. ENTITATEAK

Aldizkariari buruzko datuak

Eskatzailea:	
Aldizkariari buruzko datu nagusiak	
Izenburua	
Gai nagusia	
Antzintasuna	
Aldizkakotasuna	
2020an argitaratutako aleak	
Azken urteetan argitaratutako aleak	
Egile nagusiak	
Artikuluen hizkuntza nagusia	
Beste artikuluko batzuk	
Salmenta-prezioa (BEZa barne) papera	
Salmenta-prezioa (BEZa barne) digitala	
Orrialde-kopurua	
Ale-kopurua	
Edizio mota (papera / digitala)	
Aurreikusitako edizio epea	
Ezaugarri teknikoak	
Formatua (cm x cm)	
Karaktere kopurua, gutxi gorabehera	
Azala: koadernaketa	
Azala: inprimaketa	
Barrualdea: paper mota	
Gramajea	
Barrualdea: inprimaketa	
Ilustrazio kop., zuri-beltzean	
Ilustrazio kop., koloretan	
Argazki kop.	
Inprimaketa mota	
Edizio digitalaren formatua (epub, pdf...)	
Entitate eskatzaileak egin ez dituen kostuak	BEZIK GABE
Diseinua eta maketazioa	
Ilustrazioa, argazkia eta irudiaren tratamendua	
Erreproduktzio-eskubideak	
Itzulpena	
Idazketa, zuzenketa, dokumentazioa	
Inprimaketa eta koadernaketa	
Argitalpen digitaleko plataforma kudeatzea	
CDen, DVDen, multimedien grabazioa	
TOTAL:	0,00 €
* Ez gaitziteza kostuaren % 70 edo 6.500 €.	